



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

EKONOMIA
ETA ENPRESA
FAKULTATEA

FACULTAD
DE ECONOMÍA
Y EMPRESA


37. edizioa (2024-2025)

Executive MBA

Enpresen Zuzendaritza
eta Kudeaketa Masterra

www.ehu.eus/ieae





**Gure
Executive MBA
masterraren
formatuak
zure ibilbide
profesionala eta
prestakuntzarik
onena uztartzea
ahalbidetuko
dizu:**

FORMATUA:

Ikasturtean zehar, asteburuetan, prestakuntza presentziala, *online* laguntzarekin.

IRAKASTORDUAK:

90 kreditu, 460 irakastordu presentzialetan.

2024-2025 EDIZIOA:

2024ko irailaren 27tik
2025eko abenduaren 20ra.

IZENA EMATEKO EPEA:

Apirilaren 8tik irailaren 18ra
(Abuztuan izan ezik).
Ordutegia: 9:00-14:00.

SAIOAK:

- Ostiralak: 16:00-21:00
- Larunbatak: 08:15-13:15

OPORRALDIAK:

- Uda: uztaila eta abuztua.
- Gabonak: bi aste.
- Aste Santua: bi aste.

LEKUA:

UPV/EHUko Ekonomia eta
Enpresa Fakultatea (Sarriko)
Agirre Lehendakariaren
etorbidea, 83
48015 Bilbo.

Hiru hamarkada baino gehiago Euskadiko zuzendarien ibilbide profesionalak sustatzen

Executive MBA – Enpresen Zuzendaritza eta Kudeaketa Masterrak aukera paregabea eskaintzen dizu zure ibilbide profesionala bultzatu eta eraldatzeko.

Gure programak zure zuzendaritza-trebetasunak eta zuzendaritza-gaitasunak indartu eta garatzeko eta zure ibilbide profesionala eraginkortasunik handienarekin bultzatzeko tresnak emango dizkizu. Gainera, interesik handieneko kontaktu profesionalen sare batean sartuko zara.

Enpresen Zuzendaritza eta Kudeaketa Masterra-Executive MBA (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko graduondoko titulua)
Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (Sarriko) ematen da 1988/89 ikasturteaz geroztik. UPV/EHUko Enpresa Institutuak antolatzen du, eta Bizkaiko Foru Aldundiko

Ekonomia Sustatzeko Sailak eta Enpresaren Ekonomia Ikertzeko eta Garatzeko Emilio Soldevilla Fundazioak (FESIDE) babesten dute.

Ikasleen % 75ek adierazten du, masterrari esker, enpresan duen posizio profesionalak hobera egin duela edo beste enpresa batera aldatu dela (*)

Horrez gain, Bizkaiko Industria Ingeniarrien Elkargo Ofizialaren, Ekonomistak Euskal Elkargoaren, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren eta Michael Page enplegu-aholkularitzaren laguntza izango duzu.

(*) 33 promozioiko ikasleei (2020-2021) egindako lan-bilakaerari buruzko inkestaren arabera.

Zergatik ikasi gure Masterra?

Gaur egun, erakundeei arrakasta lortzen lagunduko dieten trebetasunak eta ezagutzak eskatzen ditu zuzendaritza-funtzioak. Lidergoa, ikuspegi estrategikoa, trebetasun analitikoa eta pentsamendu disruptiboa dira, besteak beste, Executive MBA masterrean sustatzen ditugun zuzendaritza-gaitasunak, zure ibilbide profesionalean eta zuzendaritza-ibilbidean hazi ahal izan zaitez.

Zure enpresan igo nahi baduzu, asmo handiagoko beste proiektu batzuetarako jauzia egin nahi baduzu edo zeure negozioa sortu nahi baduzu, hauxe da zure masterra.

01

ZURE IBILBIDE PROFESIONALA BULTZATZEA

Hobetu zure trebetasunak, berritu zure tresnak eta ezagutu enpresa-munduko azken joerak. Eta, hori guztia, ibilbide arrakastatsua duten irakasle eta profesional onenen eskutik.

Gure Executive MBA masterrak errekonozimendu gehigarria erantsiko dio zure curriculumari, nahi duzun bilakaera lortzeko aukera emango dizu, eta lanbide-aukera berriak zein kontaktu-harreman zabala jarriko dizkizu eskura.

Behar duzun guztietan, **Michael Page aholkularitza**-enpresaren laguntza jasoko duzu, zure proiektio profesionalean orientatzeko, **baita ospe profesional handiko mentoreen laguntza ere**, hala nahi baduzu, Masterreko Graduatuen Elkartearen lankidetzari esker.

02

LIDERGOA

Executive MBA masterrak zure gaitasunak eta zure ahalmen guztia garatzen lagunduko dizu, pertsonen eta erakundeen lidergo- eta kudeaketa-trebetasunak azpimarratzen dituen prestakuntzarekin. Gure programak, ezagutzak helarazi ez ezik, erakundeetarako liderrak sustatzen ditu.

Metodo kontrastatu baten bidez, zure lidergo-estiloa eta zure jokabide eta faktore motibatzaileak neurtu ahal izango dituzu, zeure burua hobeto ezagutzeko eta lider eraginkorragoa izateko.

03

METODOLOGIA ETA PROGRAMA

Metodologia berritzaile eta oso praktiko batekin lan egiten dugu, eta bereziki lantzen dugu ekintzailtza (korporatiboa zein enpresa sortu berrietan).

Gure programaren edukiak honako hauek eskainiko dizkizu: ingurunearen eta erakundeetan duen eraginaren inguruko ezagutza handiagoa, funtzio-arloen ikuspegi globala eta haien arteko erlazioak, negozio-eredu desberdinak, ikuspegi estrategikoa, kudeaketa-teknika aurreratuak eta kudeaketaren munduan eragina duten joerak.



04

ESPERIENTZIA PARTEKATUA ETA 'NETWORKING'-A

Gure Executive MBA prestakuntza-programa bat baino gehiago da. Harreman, jardun eta garapen profesionaleko foro iraunkorra da, eta lagungarria da parte-hartzaileen zuzendaritza- eta ekintzaitzagaistasuna zein enplegarritasun-mailak hobetzeko.

Gure ikasleen heterogeneotasunak (prestakuntzan zein hainbat sektoretan hartutako esperientzian) ikaskuntza handia ahalbidetzen du kezka berak dituzten eta enpresarloko esperientzia eta jakintza handia duten pertsonen kiderazioraren bitartez.

Masterra egiten duzun bitartean, **lehen mailako profesionalekin jar zaitezke harremanetan eta ekitaldietan parte har dezakezu, Graduatuen Elkartearen bidez.** Elkartearen ia 500 zuzendarik osatzen dute eta masterra amaitzean elkartearen kide izan zaitezke.

05

TOPAKETAK PROFESIONAL ETA ENPRESA ARRAKASTATSUEKIN

Gure harreman-sare zabalari esker, erantzukizunik handieneko lanpostuetan arrakasta izan duten profesionalek zuzenean azalduko digute beren esperientzia eta ezagutza.

Puntako enpresetako 300 liderrek baino gehiagok azaldu diete beren esperientzia 36 urte hauetan gure Executive MBA masterra egin duten 1.400 zuzendariari.

06

ITZULKINIK HANDIENA LEHIARIK GABEKO PREZIOAN

Master hau konpromiso, esperientzia eta kalitate egiaztatua duen profesional talde batek antolatzen du. Unibertsitate publiko batean (UPV/EHU) garatzen da, eta unibertsitate horrek eskuragarri dituen baliabide guztiak eskaintzen ditu. Halaber, beste bi erakunderen babesari jasotzen du. Bat publikoa da (Bizkaiko Foru Aldundia), eta bestea pribatua (FESIDE). Biek ekonomikoki laguntzen dute masterra garatzen.

Gainera, bere izaeragatik, ez du etekin ekonomikoa bilatzen, etekin soziala baizik. Horri guztiari esker, balio handiko eskaintza hau 6.255 euroko prezioan balia daiteke.

Gure ikasleen profila

Gure Executive MBA masterra lan-esperientzia (zuzendaritza-esperientzia, ahal bada) duten eta beren enpresa-ezagutzak, zuzendaritza-trebetasunak eta harreman pertsonalak hobetzeko eta kontrastatzeko interesa duten profesionaleri zuzenduta dago.

Gure ikasleen profil akademikoak askotarikoak direnez eta sektore eta enpresa desberdinetatik datozenez gero, ideien eta esperientzia errealek elkartrukea sustatzen duen ikaskuntza-ekosistema bat garatzen da, eta horrek maila profesionalen hazteko aukera emango dizu.

Masterra egiteko, ezinbestekoa da unibertsitate-titulazioa izatea.



14 urte


Batez besteko esperientzia profesionala




38 urte

Ikasleen batez besteko adina

Titulazioak



Funtzio-arloa



* Plazen ehuneko bat (% 20 gehienez) enpresa-esperientzia handia duten langabeentzat izango da.

Gure Executive MBA masterra egin dutenek
lan egiten duten enpresetako batzuk:





Rafa Vasco

Lehengaien nahaste eta biltegien arloko eragiketen arduraduna
BRIDGESTONE

Executive MBA 2024

“Executive MBA ezagutza berriak eta enpresa baten kudeaketak eskatzen duenaren ikuspegi globala ematen ari zait.

Maila pertsonalean, gehien aberasten nauena esperientziak partekatzea eta antzeko kezkak eta ikuspuntu oso desberdinak dituzten beste profesional batzuk ezagutzea da.”

“Atzerritarra naizen aldetik, nire motibazioa izan da Europako ingurunean aplikatutako enpresa-kudeaketari buruzko ezagutzak zabaltzea, ikasle eta irakasleekin networking egitea eta Espainiako lan-merkatuak irekitzea.

Executive MBARI esker, lan aukera bat aurkitu dut Salmenta eta Marketin arloan, zerbitzuen sektorean.”

Adriana Melquiades

Head of Sales & Marketing
BRAIN AND CODE

Executive MBA 2024





Idoia Marín

Zuzendaria - Bezeroak
eta Komertziala saila
Domus Vi

Executive MBA 2024

“Executive MBAk estrategia korporatiboan, finantzetan eta taldeen garapenean sakontzeko aukera ematen dit. Horrek publizitatean eta marketinean dudan esperientzia osatzen du, eta nire ibilbide profesionalean erronka konplexuagoi aurre egiteko prestatzen nau.

Zalantzarik gabe, Executive MBA egitea nire ezagutzen eta trebetasunen oinarria indartzen ari da, izan nahi dudan liderra izateko prestatzen.”

“Orain arte, nire ibilbide profesionala lanpostu nagusiki teknikoetan garatu dut eta, beraz, enpresako zeharkako beste arlo batzuetan trebatu beharra nuen, profesionalki hazten jarraitzeko.

Executive MBAk errendimendu onena lortzeko bateratzen diren enpresako arloak eta sailak ezagutzeko aukera ematen dit.”

Álvaro Bilbao

Arduraduna Negozio Garapenean
LOINTEK

Executive MBA 2024





Metodologia

Plan akademikoa zure ahalmena ahalik eta gehien balia dezazun eta zure ibilbide profesionalean beste urrats bat egiteko behar dituzun ezagutza eta tresna guztiak eskura ditzazun pentsatuta dago.

Ikasi enpresa-zuzendaritzaren funtsak, goi-zuzendaritzako erabakiak hartzen eta arazo konplexuak konpontzen. Baliatu zuzendaritza-esparruko liderra izateko dituzun aukera guztiak.

Gure metodologia malgu eta praktikoari esker, ikasleek kudeaketa-teknikei buruzko ezagutzak eskuratu eta zuzendaritza-arloko gaitasunak eta trebetasunak garatu ditzakete.

Gure MBAn, honako hauek lantzen dira:

- Irakasleen eta ikasleen azalpenak; haien *expertisea* guztion mesederako partekatzen da.
- Focus group.
- Enpresa-simulazioko praktikak (*Business Game eta Role-playing*).
- Kasuaren metodoa.

- Ospe handiko profesionalen hitzaldiak.
- Enpresak bisitatzea.
- Enpresen sorkuntza, tutoretzapean.
- Enpresa erreal baten plan estrategikoa.
- Bakarkako zein taldeko lanak egiteko tutoretza pertsonalizatua.
- Jokabide, motibazio eta lidergoko diagnostiko pertsonalizatuak.
- Ikasgelaz kanpoko *Team Buildingeko* jarduerak.
- Lan-orientazio orokorra eta espezifikoa.
- Mentoring.

Ikasleek plataforma birtual bat balia dezakete masterraren jarraipena egiteko.

Ebaluazioa

- Programa akademikoaren modulu bakoitzean proposatzen diren bakarkako zein taldeko lanak, eta Master Amaierako Lana (enpresa erreal baten Plan Estrategikoa).
- Master presentziala; gutxienez saioen % 75era joan beharko da.

Programa

Programa oinarrizko 10 arloz osatuta dago:



ENPRESA, INGURUNEA ETA ESTRATEGIA

(19 KREDITU)

- Ingurunearen analisia.
- Enpresaren analisia.
- Helburuak finkatzea.
- Estrategiak formulatzea.
- Plan estrategikoa lantzea, ezartzea eta kontrolatzea.
- AKI (Aginte Koadro Integrala).
- Nazioartekotzeko estrategiak.
- Enpresa-informazioko eta lehiaren zaintzako sistemak.
- Ekintzailtza eta negozioen garapena.



ERAKUNDEEN LIDERGOA

(7.25 KREDITU)

- Zuzendaritza, antolaketa eta egitura.
- Erakundearen diseinua eta aldaketaren administrazioa.
- Lidergoa.
- Negoziazioa.
- Motibazioa.
- Komunikazioa.
- Aurkezpen eraginkorrak.
- Autoezagutza.
- Kulturarteko kudeaketa.



KONTABILITATEA

(7.25 KREDITU)

- Kontabilitate-printzipioak. Egoera-balantzea.
- Egoera-orri ekonomikoak eta finantzarioak.
- Kostuen kontabilitatea.
- Egoera-orri finantzarioen analisia.
- Egitura- eta ekonomia-analisia.



PERTSONAK ETA TALENTUA

(5.5 KREDITU)

- Giza faktorea eta zuzendaritza.
- Pertsonen zuzendaritza estrategikoa.
- Pertsonak kudeatzeko praktikak: gaitasunen araberako kudeaketa, talentuaren kudeaketa, hautaketa, balorazioa eta garapena.
- Guztizko ordainsaria.
- Antolamendu-kultura.
- Pertsonen zuzendaritzaren ebaluazioa eta kontrola.
- Lan-harremanak.



FINANTZAK

(6.5 KREDITU)

- Finantza-matematikak.
- Enpresa-finantzaketako iturriak.
- Nazioarteko finantzaketa.
- Inbertsioen hautaketa.
- Zirkulatzailearen kudeaketa.
- Plangintza eta kontrol finantzarioak.
- Arriskuen kudeaketa.
- Nazioarteko eragiketen kudeaketa.



MARKETINA

(5.25 KREDITU)

- Marketina: bezeroak negozioaren muinean.
- Produktua, zerbitzua eta balioa sortzeko esperientzia.
- Prezioak finkatzea.
- Banaketa kanal orotako aroan.
- Merkataritza-komunikazioa eta «social media marketing».
- Marketin digitala. SEO, SEM eta analitika digitala.
- Big datan oinarritutako marketin-erabakiak.
- Merkataritza-plangintza.
- Marketin-funtzioaren kudeaketa integrala.
- Marketin-plana.



ERAGIKETAK ETA ERALDAKETA DIGITALA

(2 KREDITU)

- Lean manufacturing eta industria 4.0.
- Informazio eta eraldaketa digitaleko sistemak.
- *Blockchain*.
- Adimen artifiziala.



FISKALITATEA ETA LEGE- ERANTZUKIZUNA

(2.25 KREDITU)

- Enpresen fiskalitatea: BEZ, PFEZ eta Sozietateen gaineko Zerga.
- Enpresa-zuzenbidea.
- Zuzendaritza-karguen lege-erantzukizunak.



HITZALDIAK ETA BISITAK

(5 KREDITU)

Ospe profesional handiko hizlariak Masterraren iraunaldian ematen dituzten hitzaldiak, eta inguruko enpresa garrantzitsuetara egiten diren bisitak.



ENPRESAREN TXOSTENA ETA MASTER AMAIERAKO PROIEKTUA

(30 KREDITU)

- Enpresa-aplikazioaren txostena.
- Plan Estrategikoa Master Amaierako Lana.

2023-2024ko hitzaldiak

“Enpresarekiko topaketak” izenburupean, hitzaldi-ziklo bat egiten dugu, enpresaren eta kudeaketaren arloko profesionalen ezagutzak eta esperientziak Masterreko ikasleekin eta gizartearekin partekatzeko. Hitzaldiak hilean behin egiten dira.



Jokin Umerez
TERNUA GROUPEko
zuzendari nagusia



Eudald Carbonell
ATAPUERCA FUNDAZIOko
presidenteordea eta Atapuerca
Proiektuko zuzendarikidea



María Marín
AUZOLAN FUNDAZIOko
presidentea eta
merkataritza-zuzendaria



Sana Khouja
DRINK ZEENAKo
sortzailea eta CEOa



Joseba Villate
ALTERITYko
CEOa



María Aldecoa
BRIGDESTONEko
giza baliabideetako zuzendaria



Juan Ignacio Vidarte
GUGGENHEIM
BILBAO MUSEOko
zuzendari nagusia



Antón Pradera
CIE AUTOMOTIVEko
Presidentea



Unai Agirre
EGOIN GROUPEko
Zuzendari Nagusia



Alex Cruz
VUELINGeko eta BRITISH
AIRWAYSEko CEO ohia



Herbert Diess
VOLKSWAGEN
GROUPEko CEO ohia eta
INFINEONEko CEOa



Jesús Esmorís
TUBACEXeko
kontseilari ordezkarria



Asier García
BIDAIDEAREko kapitaina eta
ESPAINIARO SASKIBALOI
SELEKZIOKO AULKI
GURPILDUNEAN



José Poza
STELLUM CAPITALeko
Presidentea



Mariano Ucar
FAESEko
Presidentea



Ernesto Ubieto
HILTI UKRo
Marketin Zuzendaria



Adolfo Rebollo
INGETEAMEko
CEOa



Tamara Yagüe
CONFEBASKeko
Presidentea



Patxo Telleria
Zuzendaria, ekoizlea eta
aktorea. TARTEAN TEATROA



Juan Tomás Hernani
SATLANTISEko
CEOa

Enpresetarako bisitak

Enpresa-sarearen instalazioak, esperientziak eta kudeaketa-moduak zuzenean ezagutzeko eta *team buildingeko* jarduerak egiteko bisitak. Taldeak kudeatzeko eta pertsonak garatzeko metodologia berritzaileak erabiliko dira.



UXARTE

Bizkaiko sagardotegia, bere fruta- eta sagardo-produkzioaren kalitateagatik ezaguna.



MERCEDES-BENZ

Automobilgintza-sektoreko multinazionalak Gasteizen duen produkzio-instalazioa.



ULMA EMBEDDED SOLUTIONS

Sistemen ingeniartzako eta produktu elektronikoen garapeneko zerbitzuen kooperatiba.



BODEGAS VALDELANA

Arabako Errioxako upategia, nazioartean ezaguna bere berrikuntza eta kalitateagatik.



BRIDGESTONE

Pneumatikoak fabrikatzen dituen Japoniako enpresa multinazionalaren Bizkaiko lantegia.



OUTDOOR TRAINING

Jarduera-enpresekiko lankidetzeta eta erakundeei zuzendutako *Team buildingeko* esperientzia.

Irakasleak

Gure irakasleak enpresaren eta aholkularitzaren munduan ospe handia duten kanpoko profesionalak eta UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko eta beste unibertsitate batzuetako irakasle doktoreak dira, eta esperientzia handia dute zuzendaritza-kudeaketan eta zuzendaritza-prestakuntzan.

ENPRESA, INGURUNEA ETA ESTRATEGIA

Juan DEL HOYO ALBENIZ ●
Domingo GARCÍA MERINO
Idoia IDÍGORAS GAMBOA
Unai MENDIKOTE MERINO ●
María SAIZ SANTOS
Nerea SAN MARTÍN ALBIZURI
Oihana VALMASEDA ANDÍA
Oskar VILLARREAL LARRINAGA

ERAKUNDEEN LIDERGOA

Jon BARRUTIA GÜENAGA
Imanol BASTERRETXEIA MARKAIDA
Sergio DE MIGUEL TARONCHER ●
Mikel GARAIZABAL PILDAIN ●
Jon LANDETA RODRÍGUEZ
Javier MARTÍNEZ ALDANONDO ●
P. Pablo RAMOS REGALADO ●
Lucia SÁEZ VEGAS
Susana TEJADA BARRENETXEA

KONTABILITATEA

Igor ÁLVAREZ ETXEBERRIA
Teodoro CARABALLO ESTEBAN
Marcela ESPINOSA PIKE
Ander IBARLOZA ARRIZABALAGA
Gaizka ZUBIAUR ETCHEVERRY

PERTSONAK ETA TALENTUA

Alberto BARRIOS AYALA ●
Josep CAPELL GUIU ●
Fernando DE SANTIAGO ●
Jon LANDETA RODRÍGUEZ
Federico PÉREZ SENDRA ●
P. Pablo RAMOS REGALADO ●
Jaime SEGALÉS FIDALGO ●
Juan Luis URRUTIA TXOPITEA ●
José Luis ZAYAS CALVO ●

FINANTZAK

José María AMORRORTU CAMPILLO
Txomin ITURRALDE JAINAGA
Miguel Ángel PÉREZ MARTÍNEZ
Ainara RAMÍREZ BALTZIZKUETA ●
Luis SANGRÓNIZ BILBAO ●
Juan SANTOS FERNÁNDEZ ●

MARKETINA

Gorka GOIKOETXEA EGIZABAL ●
Pedro GÓMEZ RODRÍGUEZ
Vicente GUTIÉRREZ AGUIRRE ●
Julián PANDO GARCÍA
Alex RAYÓN JEREZ ●
Imanol TORRES MELERO ●
Iñaki VIDAURAZAGA Z. ●
Pilar ZORRILLA CALVO

ERAGIKETAK ETA ERALDAKETA DIGITALA

Luis ALONSO ESPESO ●
Goizalde HERNANDO SARATXAGA
Oscar LAGE SERRANO ●
Alex RAYÓN JEREZ ●

FISKALITATEA ETA LEGE-ERANTZUKIZUNA

Martín CUBILLO VALENCIA ●
Eneko DELGADO ●
Manuela ESCRIBANO RIEGO
Miguel ETCHART ORTIZ ●
Antonio PÉREZ DELGADO ●

ZUZENDARITZA-TALDEA

Jon LANDETA RODRÍGUEZ
Julián PANDO GARCÍA
Pilar ZORRILLA CALVO



MASTERREKO IDAZKARIA

Cristina ARÍSTEGUI FUENTES
mbasarriko@ehu.eus



Julián PANDO GARCÍA
julian.pando@ehu.eus

Pilar ZORRILLA CALVO
pilar.zorrilla@ehu.eus

Jon LANDETA RODRÍGUEZ
jon.landeta@ehu.eus

Graduatuen Elkarte

Master hau egin duten eta beren borondatez kide izan nahi duten graduatuez osatuta dago, eta Masterreko tituludunentzat konexio-bide eta giza garapenerako eta garapen profesionalerako bide izatea du helburu.

Dagoeneko hogeita hamalau urte eta 500 kide inguru ditu, eta haren bizitasuna urtez urte geratzen da agerian. Executive MBAREN edizio honetako ikasleek Elkartearen zerbitzu eta jarduera guztiak dituzte eskuragarri, kideen baldintza berberetan.

Elkartearen jarduera nagusiek honako arlo hauek dituzte ardatz:

- Ospe handiko profesionalen hitzaldiak.
- APDK (Zuzendaritzaren Aurrerapenerako Elkarteak) Masterreko ikasle guztientzat antolatzen dituen jardueretan parte hartzeko aukera, bi erakundeen artean sinatutako akordioari esker.
- Zuzendaritza-prestakuntza.
- Lan-poltsa.
- Eztabaida-foroak.
- Inbertsio-sarea.
- Enpresetarako bisitak.
- Afari-solasaldiak.
- *Networking*-topaketak.
- Elkartekideen *online* foroak.
- Padel, BTT eta golfeko txapelketak.
- *Mentoring*-a.

<http://sarrikombaalumni.com>

Izena ematea eta matrikula

Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Sarriko)

Agirre Lehendakariaren
etorbidea, 83
48015 BILBO.

Bulegoen eraikina, 1. solairua,
68 zk. OC44 bulegoa
Cristina Aristegui

Izena emateko epea:

Apirilaren 8tik irailaren 18ra
(Abuztuan izan ezik).

Orduategia: 9:00-14:00.

Tfnoa.: 94 601 37 08/09

e-mail: mbasarriko@ehu.eus

www.ehu.es/ieae

Matrikula: 6.255 €

Executive MBA - Enpresen Zuzendaritza
eta Kudeaketa Masterrak aldaketak sar
ditzake 2024-2025 edizioko Programan.

2024ko apirila

www.ehu.eus/ieae

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

FESIDE
Fundación Emilio Sotdevilla
para la Investigación y Desarrollo
de la Economía de la Empresa

**enpresa
institutua**
Instituto de Economía Aplicada a la Empresa

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



Michael Page

